BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4613

EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 2koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, beherago zehaztu proiektuari uko egitea onartzeko dena: Haurralde Fundazioa erakundeak 2006ko GLSFren konturako proiektuei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Kwanza Sul eskualdeko 10 komunitateren bizi kalitatea hobetzea, elikadura segurtasunaren, emakumeek lurrak edukitzeari buruzko heziketaren, hiesaren prebentzioaren eta parte-hartze demokratikoaren bitartez. Angola» Proiektua.

2006ko azaroaren 27ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduaren bidez, Haurralde Fundazioa erakundeari 151.450 euroko diru-laguntza eman zitzaion, «Kwanza Sul eskualdeko 10 komunitateren bizi kalitatea hobetzea, elikadura segurtasunaren, emakumeek lurrak edukitzeari buruzko heziketaren, hiesaren prebentzioaren eta parte-hartze demokratikoaren bitartez. Angola» proiektua gauzatzeko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2011ko uztailaren 18an bidalitako komunikazioan, hirugarren ordainketari uko-egiteko eskaera aurkeztu zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 28. artikuluko 1. idatz-zatiak ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileak proiektuaren aurreikusitako garapenean funtsezko eragina izan dezakeen edozein gorabeherak jakinarazi beharko dizkio aldez aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari, eta proiektuan egin nahi diren aldaketak gauzatu aurretik baimen-eskaera bidali beharko dio, aurrekontuan dituzten ondorioak zehaztuta.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Haurralde Fundazioa erakundeari 2006 GLSFren kontura proiektuetarako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Kwanza Sul eskualdeko 10 komunitateren bizi kalitatea hobetzea, elikadura segurtasunaren, emakumeek lurrak edukitzeari buruzko heziketaren, hiesaren prebentzioaren eta parte-hartze demokratikoaren bitartez. Angola» proiektuari uko-egiteko eskaera onartzea.

Horren ondorioz, hirugarren ordainketa egiteko akordioak (30.290,06 euro) indarra galdu du.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 2a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.